

Jesus Mari Lazkano artista bergararraren lehen erakusketa antologiko handia izango da **kubo-kutxa** aretoan



Donostia, 2016ko uztailaren 21a. **kubo-kutxa** aretoan gaur hasiko da, eta bihar irekiko da jende guztiarentzat, urriaren 16ra arte, Jesus Mari Lazkano artistaren atzera begirako lehen erakusketa handia. Ehun lan baino gehiagoren (formatu handiko margolan, marrazki, ohar-koaderno eta abarren) bidez hiru hamarkada baino gehiagotan egin duen arte-ibilbidea erakusten da.

Erakusketak agerian uzten duen pintura-bilakaera, Javier González de Durana komisarioaren hitzetan, “elkarri loturiko bi kausaren emaitza da: alde batetik, hausnarketa-bidaia iraunkorra margolaritzaren inguruan lanbide gisa, pintura-irudia errepresentazio gisa eta natura ingurune gisa; eta bestetik, bere periplo ugariak hainbat eta hainbat lekutatik, batzuetan hurbileko lekuak, eta beste batzuetan irudikatuak bezain urrutikoak”. Lazkanoren margolaritza arte-historian eta historikoki arteak ukitu duen munduan zehar etengabe ibiltzearen emaitza da.

Artista

Jesus Mari Lazkano (Bergara, 1960), artista izateaz gain, Euskal Herriko Unibertsitatean pintura Saileko irakasle titularra da, bertako Arte Ederretako fakultatean lortu zuelarik 1994an doktore-titulua tesi honekin: *“De la distancia entre lo formal en arquitectura y la arquitectura como imagen”*.

Euskal Herrian egindakoez gain, bakarkako erakusketa asko egin ditu AEBetan, Txinan, Suitzan, Indonesian, Espainian eta Italian. New York, Chicago, Dallas edo Erroma hirietan egindako egonaldiek gaika ondoz ondoko serietan egituratu dute haren lana, etengabeko erreferente bihurtuz haren margolaritzan.

Pintura leku publikoan integratzeaz interesaturik, tamaina handiko lan garrantzitsuak egin ditu, adibidez, Cesar Pelli-ren Iberdrola Dorrean, 6x15 metroko lan batekin.



1985ean Gure Artea saria eman zioten eta 2007an Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Titanio Saria, arkitektura-ezaupideak erabiltzen dituzten artistak saritzen dituen. Aurten bertan Jakiunde-Euskal Herriko Zientzia Arte eta Letren Akademiako kide oso izendatu zuten.

1998an Erromako Arte Ederren Akademian eman zioten saria, eta ordudanik harreman estua du Italiarekin. Bere lanarekin batera, bere bidaietan egindako marrazki-koadernoen argitalpen faksimile zainduak daude, eta katalogo monografiko ugari egilearen testuekin.

Bere erakusketen artean, nabarmentzekoak dira Bilbon egindako hiru hauek: 2003an BBK Salan; 2007an bakarkako erakusketa Guggenheim Museoan; eta 2010ean atzera begirako erakusketa handia Arte Ederren Museoan, inflexio-puntua izan zelarik paisaiari beste era batera begiratzeko.

Bere lana hainbat herrialdetako bilduma eta museoetan aurkitzen da, adibidez, Château du Montbéliard museoan, Hong Kong eta Los Angeleseko Colecione Bulgaryn, Washingtingo International Finance Corporation-en edo Bilboko Guggenheim eta Arte Ederren museoetan.

Prensa-oharra

2012tik Euskal Herriaren eta New Yorken artean bizi da, eta data horretatik aurrera gertatzen da gai-biraketa haren lanean, batez ere paisaia neosublimearen inguruan.

Erakusketa

kubo-kutxa aretoaren erakusketa antologikoa sarrerako gelatik abiatzen da formatu txikiko obra asko, marrazki, koaderno, ohar eta abarrekin, eta Lazkanoren ibilbidea eta lan egiteko era marrazten dituen atlas moduko bat da.

Areto nagusian formatu handiko margolanak daude, artista honen lanaren ezaugarri direnak. 80ko urteetako lanekin hasten da, eta orduan haren munduan leiho, ate, pasabide eta antzeko gauza asko zegoen. Mugakoa, tarteko gunek, igarobideak... non nago eta norantz noa galderak artistaren buruan biraka balebiltza bezala, betiere atalase orok zeharkatu aurretik sortzen duen ziurgabetasun horrek zirikatuta.



Paso subterráneo, 1982
Bilduma partikularra

Prensa-oharra

Denboraldi honen ondoren, Lazkanok begiak jasoko ditu eta zerumugara zuzentzean inguruko errealitatearekin, hiriarekin topo egingo du. Industria-izaerako eraikinak naturarekin nahasten dira, aurkarien elkarrizketak ezarriz eta atmosfera irreal bat sortuz. Industria-eraikinekiko interes honek iraun egingo du Lazkanok New Yorken 1989an egingo duen egonaldian ere. Hiriaz arduratu ondoren, artistak izadi edo naturara bideratuko du bere lana.

1998an Lazkano Italiara joan zen, eta han Erroma inperialak eta Errenazimentuko Italiak aukera eman zioten Ponpeiako margolaritza muralaren eta perspektiba espazialaren tekniketara hurbiltzeko. Grand Tour-aren ametsa gauzaten ari den XVIII. mendeko bidaiari ilustratu bat bezala, Lazkano antzinakoaren eraginaz betetzen da benetan egungoa izateko. Txoko bakoitza, villa bakoitza, lurpetik berreskuraturiko hiri bakoitza begiratu, arakatu, ikuskatzen du, eta behatzen duenaren ikuspegi bat jasotzen du bere koaderno eta margolanetan, aurreko mendeetako margolari eta marrazkilariena ez den zerbait.

Italiako abentura amaitu ondoren, 2001ean New Yorkera itzuli zen. Bere aurreko etapako New Yorketikiko alde handiena zera da, orain margolanaren barruan sartuta geratzen den barnealdean kokatzen dela bera. Kanpoalde nabarrari barnealde soil eta sinplifikatutik begiratzen zaio, baina konposizio eta material aldetik luxu nabarmenekoa. Lurretik sabairainoko beirate handiei esker, hondoan etxe-orratzak eta kale-bilbeak ikusten dira. Arkitekturarekiko erlaziora itzulita, arkitekturaren ikono handietako batzuk aztertu zituen, adibidez, Mies van der Rohe-ren Farnsworth etxea edo Frank Lloyd Wright-en Ur-jauziaren Etxea, eta horien gainean lan egiten du ereduan aldaketa txikiak sartuta, beste era batera ulertzeko.



Cuando algo sutil perdura y parece renacer algo distinto, 2006
Artistaren bilduma

Prensa-oharra

Artista honen ibilbidea ikusten amaitzeko, goiko aretoan azken sortze-lanak egongo dira, eta hor bi margolanetan olatu harrotuko ozeanoa ikusten da, ezinezko leize-zulo batean amiltzen dena. Bere margolaritzan dagoen irrealaz hitz egiten digute. Irudi sinbolistak dira, Magritte-ren surrealismoaren eta hondamendi ekologikoarekiko izuaren artean.

Jarduera paraleloak

kubo-kutxa aretoko erakusketetan ohi bezala, eta hezkuntza-zorroztasunaren ildoari jarraituz eta arte-eremuko hezkuntza jakintza sortzeko erreminta gisa ulertuz, familientzako tailerrak egingo dira larunbatetan 12:00etatik 13:30era. 5 eta 11 urte arteko haurrentzat, helduek lagunduta.



La Catedral nevada, 1987
Artistaren bilduma

Oraingoan proposatzen den lantegi edo tailerrak galdera honi erantzun nahi dio: *Bada norbait hor?* Parte-hartzaileak Lazkanoren paisaia misteriotsuetan murgilduko dira, beraren eraikin hutsetara sartuko dira, ikusten ez diren bizitzak irudikatuz, arrazoiren batengatik ezkututzen diren pertsonak bilatuz. Eta beren paisaia hiperrealista propioa eraikitzeko trikimailu batzuk ikasiko dituzte.

Gainera, **kubo-kutxa** aretoak doako bisita gidatua eskainiko du larunbatero, 18:30ean euskaraz eta 19:30ean gaztelaniaz, aurrez izena ematea, beste egin beharrik gabe.

Prensa-oharra

Katalogoa

kubo-kutxa aretoak egiten dituen erakusketa guztietan ohikoa den bezala, oraingoan ere 220 orrialdeko katalogoa argitaratu du, bertan erreproduzituz erakusketan dauden lanak, baita Javier González de Durana komisarioaren eta Jesus Mari Lazkanoren beraren azalpen-testuak ere.

Datak eta ordutegiak

Artista bergararraren atzera begirako erakusketa zabalik izango da jendearentzat **kubo-kutxa** aretoan 2016ko uztailaren 22tik urriaren 16ra artean, asteartetik igandera, 11:30-13:30 eta 17:00-21:00 bitartean. Beti bezala, sarrera doakoa da.